



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENTSA OHARRA

2016/07/13

## **Batzar Nagusiek Kontzertu Ekonomikoa hobeto ezagutzeko dibulgazino jarduketak "aztertzea" eskatu deutsie Aldundiari**

Bizkaiko Batzar Nagusiek Talde Mistoak aurkeztutako arauz besteko proposamena onartu dabe gaur goizean Ekonomia eta Ogasuneko batzordean, Aldundiak, "legealdi honetan, Kontzertu Ekonomikoa gehiago ezagutzea eta hobeto baloretea lortzeko gure biztanleen artean dibulgazino eta informazino hainbat jarduketa bultzatzeko modurik hoberena aztertu daian". Ekimenak Euzko Abertzaleen, Euskal Sozialisten eta Bizkaiko Alderdi Popularraren aldeko botoak jaso ditu, eta EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dabe.

Euskal Kontzertu Ekonomikoa Euskadiren eta Estaduaren arteko tributu arloko erlazinoak arautzen dituan foru sistema da. Arturo Aldecoaren eretziz, euskal autogobernuaren "ardatz nagusietakoa" da, baina, halanda be, bere garrantzia ez dator bat Euskadiko biztanleok sistema horren inguruan daukagun ezagutza mailegaz. Kontzertu ekonomikoa "ezezagun handia" da.

"Gaitza da ezagutzen ez dana gura izatea eta defendidutea", esan eban Pedro Luis Uriartek, Eusko Jaurlaritzako sailburu izandakoak, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan eskini eban hitzaldian, Aldecoak gaur gogoratu dauen moduan. Hitzaldi haretan esan zan "Euskadiko biztanleen %50 baino gehiagok ez dauela ezagutzen edo ez dakiela zertaz doan" Kontzertua. Hori dala eta, Talde Mistoaren eretziz, Aldundiarentzat "lehentasuna" izan behar dau gure gizartean Kontzertu Ekonomikoa "ezagutzeak eta gura izateak". Eta gehiago oraindino "hainbat moetak" mehatxuak dagozan honetan. "Ezin daikegu onartu etorkizunean jostailu politikoa izatea". "Ideologiengainetik defendidu behar dogu", azpimarratu dau.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira Kontzertu Ekonomikoa gure herrialdearen garapenerako funtsezko elementua dala esatean, baina Talde Mistoak aurkeztu dauen proposamenak ez dau Batzarretako talde guztien oneretxia jaso.

Podemos Bizkaiak esan dauenez, "Espainiako eskuma eta bere inguruko medioak" dira Kontzertu Ekonomikoaren "etsaiak", eta horreek dira Estaduan "Kontzertuaren kontrako azpiko behar hori" egiten ari diranak. Ez dabe onartzen "desbardintasunakaz" erlaziionauta dagon ezer, Euskadiko Kontzertu Ekonomikoa edo autogobernua, beste gauza batzuen artean. Talde hori ez da ekimenaren alde agertu, Kontzertuaren egoerara mugatu dalako. Mikel Isasiren eretziz, "gabezia instituzional" handia dago Euskadiko erakundeen egitura osoaren ezagutzaren gainean.

EH Bilduk ezezko botoa emon dau, bere esanetan Kontzertuaren dibulgazinoa daborduko hitzarmen biren bitartez egiten dalako, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, aurton,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

hitzarmen horreetara “63.000 euro baino gehiago” bideratzen ditualako. Sozialistek eta gero jeltzaleek gogoratu daben moduan, 2001ean jarri zan martxan Kontzertu Ekonomikoaren sustapenerako eta hedapenerako “Ad Concordiam” Alkartea. Alkarte horretan Deustuko Unibersidadeak, UPV/EHUK eta Foru Aldundiak hartzen dabe parte. Eta, gainera, 2015ean, Aldundiak hitzarmen bat sinatu eban Euskal Herriko Unibersidade Publikoagaz, Kontzertu Ekonomikoaren Dokumentazino Zentroaren jarduerak finantzetako.

EAJ-PNV taldetik ekintza bi horreek izan daben eragin “positiboa” azpimarratu da, eta Talde Mistoaren proposamenaren alde egiteko prest agertu dira, baina “ñabardura” bigaz: orain arte egin dana “modu positiboan” baloretea eta “aurrekontuetatik erabili daitekena” kontuan izatea, adierazo dau Oscar Arana batzordekideak.

Alexia Castelo sozialistak, bere aldetik, Kontzertua ezagutuarazoteko daborduko egiten diran ekintzak “barriri pentsetaren eta aztertzearen” aldeko apustua egin dau, egia dalako Euskadiko gizartearen parte handiak “ez dauela ezagutzen”.

#### IRUZUR FISKALAREN GAINEKO TXOSTENAREN EGILEEN AGERRALDIAK

Beste alde batetik, Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak, talde guztien aldeko botoagaz, abstenidu egin dan PP taldearenagaz izan ezik, Ezkutuko ekonomia eta zerga-iruzurra EAEn txostena egin daben Ignacio Zubiri, Javier Fernandez-Macho eta M<sup>a</sup> Carmen Gallastegi katedradunen agerraldia eskatzea onartu dau. Horren aurretik, Talde Mistoak gaien zerrendatik baztertu egin dau eguneko José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuari zuzendutako agerraldi eskaerea. Diputatuaren agerraldia, iruzur fiskalaren gainean egoteko politiken hainbat alderdi zalantzan jarten dituan dokumentu horren gaineko eretxia emoteko izan behar zan.

#### LANEKO BALDINTZAK SAN MAMESEN

Beste alde batetik, koalizino abertzaleak Bizkaiko Foru Aldundiak San Mameseko estalduran egiten ari diran lanen barri emon daijala eskatu dau Batzarretan, ELA sindikatuak obra horreetako lan baldintzen gainean aurkeztu dituan “salaketak” dirala eta, bagilaren 16ko data eukan agerraldi idazkian iragartzen zanez.

Iruarrizagak jakinarazo dauenez, Lan Ikuskaritzak joan dan “garagarrilaren 11n”, aurkeztutako salaketaren inguruan “ezelango irregularitasunik” ez egoala jakinarazo eutsan Athletic Club taldeari, estaldurea handitzeko lanen erantzule “bakarrari”, hain zuzen be. Diputatuak adierazo dauenez, salaketa hori “garagarrilaren 7an egin eban LAB sindikatuak”. Gainera, diputatuak esan dauenez, “bagilaren 24an” Athletic Club taldeak ELAk aurkeztutako “salaketen” barririk ez eukala jakinarazo eutsan Aldundiari.

EH Bilduko Zigor Isuskizak esan dauenez, Foru Aldundiak, futbol zelaia diru publikoagaz eregi dauen San Mames Barria soziedadeko kide dan neurrian, “kontrolau” egin beharko leukez obra horreek. Sindikatuak salatu dabenez, “asteen 72 orduko” lan jardunaldiak egiten ari dira bertan. Batzordekide abertzaleak kritikau dauenez, Foru



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Gobernuak “horrenbesteko gogoz” defendiduten dauen eredu “publiko-pribaduan” oinarrituta, Aldundiak “bere erantzukizuna ahaztu egiten dau”, “esklabotasunekoak” diran baldintzak baimenduz. “Laneko eskubideak bete daitezcan neurriak ezartea” eskatu dau.

Iruarrizagak gogoratu dauenez, estaldurea handitzeko une honetan egiten ari diran lanen erantzukizun “oso-oso” Athletic Club taldearena da, eta kritikau egin dau EH Bildu gai “desbardin” bi nahasten ibiltea, hau da, Aldundia San Mames Barria soziedadeko kide izatea eta, bestetik, Athletic Club taldeak bere kontratakaz dauen erlazinoa, Ibaiganekeo taldeak, berak bakarrik, sustau dauen lan batean. Beraz, bere berbetan, Aldundiak “ez dauka ezelango erantzukizunik lan horretan”.

Gainera, diputatuak zehaztu dauenez, foru erakundeari ez jagoko obrak ikuskatzeko beharra egitea, Lan Ikuskaritzari baino, eta gogoratu dauenez, San Mameseko kontratuko pleguetan Bizkaian indarrean dagon sektoreko hitzarmena beteteko agindua emoten jake esleipena lortzen daben enpresei. Hitzarmen horretan, “egoera jakin batzuetan” aparteko orduak egiteko aukerea jasoten da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
13/07/2016

## **Las Juntas Generales piden a la Diputación que "estudie" actuaciones divulgativas para lograr un mayor conocimiento del Concierto Económico**

El Parlamento de Bizkaia ha aprobado esta mañana en el seno de la comisión de Economía y Hacienda, una proposición no de norma presentada por el grupo Mixto, para que la Diputación “estudie la mejor manera de impulsar a lo largo de esta legislatura una serie de actuaciones divulgativas e informativas entre nuestra población para lograr un mayor conocimiento y mejor valoración del Concierto Económico”. La idea ha contado con el apoyo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno, y el rechazo de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

El Concierto Económico Vasco es el sistema foral que regula las relaciones de orden tributario y financiero entre el País Vasco y el Estado. Es, según Arturo Aldecoa, “una de las piedras angulares” del autogobierno vasco y, pese a ello, su trascendencia no coincide con el grado de conocimiento que se tiene de él en Euskadi. El Concierto es el “gran desconocido”, ha señalado.

“Es difícil querer y defender lo que se desconoce”, afirmó Pedro Luis Uriarte, ex consejero del Gobierno Vasco, en una conferencia ofrecida precisamente en la sede de Juntas Generales de Bizkaia, como ha recordado hoy Aldecoa. En dicha cita, Uriarte dijo que “más del 50% de la población vasca no conoce o no sabe de qué va” el Concierto. Por ello, el juntero del grupo Mixto ha explicado que debe ser una “prioridad” para la Diputación impulsar en nuestra sociedad el “conocimiento y aprecio” del Concierto Económico. Más aún cuando existen amenazas de “diverso” origen. “No debemos dejar que sea un juguete político en el futuro”. “Hay que defenderlo por encima de ideologías”, ha sostenido.

Todos los grupos junteros han coincidido en destacar la importancia del Concierto Económico como elemento fundamental de desarrollo del país, si bien la propuesta del grupo Mixto ha levantado algunas reservas entre los grupos junteros.

Podemos Bizkaia ha apuntado a la “derecha española y a sus medios afines” como “enemigos” del Concierto Económico, que son los que hacen “esa labor de zapa” en el Estado. Rechazan aquello que tiene que ver con la “diferenciación” como es el caso del Concierto Económico o el autogobierno vasco. Este grupo no ha apoyado la iniciativa por circunscribirse exclusivamente a la situación del Concierto. Para el apoderado de la formación morada Mikel Isasi, existe un “déficit institucional” en lo referente al conocimiento de todo el engranaje institucional vasco.

EH Bildu ha gravitado su negativa en que la divulgación del Concierto se realiza ya a través de dos convenios en los que la Diputación foral de Bizkaia aporta este año “más



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

de 63.000 euros”. Como han recordado socialistas y jeltzales luego, en 2001 arrancó su trabajo divulgativo la Asociación para la promoción y difusión del Concierto Económico “Ad Concordiam”, en la que colaboran la Universidad de Deusto, la UPV/EHU y la Institución foral. Y en 2015, la Diputación firmó un convenio con la Universidad Pública Vasca para financiar las actividades del Centro de Documentación del Concierto Económico.

Desde las filas del PNV, han destacado el impacto “positivo” que han suscitado estas dos acciones, y se han mostrado partidarios de apoyar la propuesta del grupo Mixto pero con dos "matices", apuntados por su apoderado Oscar Arana. Que se valore “positivamente” lo que se ha hecho y que se tengan en cuenta las “disponibilidades presupuestarias”.

Por su parte, la socialista Alexia Castelo ha apostado por “repensar” y “revisar” las acciones que ya se hacen para divulgar el Concierto que “es cierto que es un desconocido” para buena parte de la sociedad vasca.

#### COMPARECENCIAS DE LOS AUTORES DEL INFORME SOBRE FRAUDE FISCAL

Por otro lado, la comisión de Economía y Hacienda ha aprobado con el apoyo de todos los grupos junteros, a excepción del PP que se ha abstenido, solicitar la comparecencia en Juntas Generales de los catedráticos Ignacio Zubiri, Javier Fernandez-Macho y M<sup>a</sup> Carmen Gallastegi, autores del informe “Economía Sumergida y Fraude Fiscal en la CAV”. Previamente, el grupo Mixto ha decidido retirar del orden del día una comparecencia en la que el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, iba a dar su opinión en relación al citado documento que cuestiona diversos aspectos de las políticas de persecución del fraude fiscal.

#### CONDICIONES LABORALES EN SAN MAMES

Por otro lado, la coalición abertzale había pedido que el Ejecutivo vizcaino informase en la Cámara territorial de los trabajos de cobertura del estadio de San Mames ante las supuestas “denuncias” presentadas por el sindicato ELA en relación a las condiciones laborales, según se anunciaba en el escrito de comparecencia fechado el 16 de junio.

Iruarrizaga ha informado que la Inspección de Trabajo notificó el pasado "11 de julio" al Athletic Club, responsable “único” de las obras de ampliación de la cubierta, que no existía “irregularidad alguna” en relación a la denuncia presentada, que según el diputado, fue realizada “por el sindicato LAB, el 7 de julio”. El diputado ha apuntado, además, que “el 24 de junio” el club informó a la Diputación desconocer las “denuncias” de ELA.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Zigor Isuskiza, de EH Bildu, ha mantenido que la Diputación, como miembro de la sociedad San Mames Barria que ha construido el estadio con dinero público, debería “controlar” unas obras en las que, según denuncian los sindicatos, se estarían dando jornadas laborales de “72 horas semanales”. El juntero abertzale ha criticado que, en base a un modelo “público-privado” que defiende el Gobierno foral “con tanto ahinco”, se “inhiben de su responsabilidad”, permitiéndose condiciones “de esclavitud” en las obras de "La Catedral". Ha pedido que se establezcan “medidas para que no se vulneren los derechos laborales”.

Por contra, Iruarrizaga ha recordado que la obra actual de la cubierta es responsabilidad “en exclusiva” del club y ha criticado que EH Bildu se dedique a mezclar dos asuntos “diferentes” como son, por un lado, la pertenencia de la Diputación a San Mames Barria y, por el otro, la relación del Athletic con sus contrata en una obra promovida únicamente por el club de Ibaigane. La Diputación “no tiene ninguna responsabilidad sobre la ejecución de este trabajo”, ha dicho.

Además, el diputado ha precisado que a la Institución foral no le compete la labor de inspección de las obras, sino a Inspección de Trabajo, y ha recordado que los pliegos del contrato en San Mames exigen a las empresas adjudicatarias cumplir el convenio vigente del sector en Bizkaia, en el que se establece la posibilidad de realizar horas extraordinarias "en determinadas situaciones".